

TXINDURRI EGUNA APIRILEAN

Txindurri txistu eta dantza taldeak bere eguna ospatu-ko du apirileko azken aste-buruan. Larunbatean, hilak 23, Adolfo Jainagaren 'Plazara Dantzara' egongo da Orbe Kardinalaren plazan, 18:30ean. 20:00etan berriz, Larraindantza herri-koia dantzatuko da. Domekan, hilak 24, txistulariek diana joko dute 10:00etan eta 11:00etan dantzarien kalejira hasiko da. 12:30ean dantza erakustaldia egongo da plazan eta ospakizunari amaiera emateko, bazkaria eta erromeria egongo dira Aritzemendi pilotalekuan, 14:30etik aurrera.

BERBALAGUNEKO IKASTAROAK APIRILEAN

Apirilaren 15, 22 eta 29an 'Pintxogintza eta ogigintza' ikastaroa egingo da Errekena elkarte gastronomikoan. Apirilaren 29an eta maiatzaren 6an eta 13an, 'Yoga'koa egingo da, Lobianon. Informazio gehiago eskatzeko 639414205 telefonora deitu beharko da edo ermua_berba@aek.org helbidera mezu elektronikoa bidali.

SARRIA-GORBEA-ITXINA-URIGOITI IBILBIDEA, 27AN

Artarrai Mendi Taldeak ibilbidea prestatu du martxoaren 27rako, larunbaterako. Sei orduko iraupena izango du eta bertaraino joateko autobusa 8:00etan irtengo da Agirre Kirolak denda aurretik. Prezioa, 5 euro bazkideak eta 10 euro bazkide ez direnak.

Kotxeetarako pegatinak ermuar baten diseinu

Bertako zerbait sortu nahian, baserritar baten irudia zebilen Antonio Hernández 'Cuco'ren buruan bueltaka aspalditik. Berta-bertakoagorik ezin! Senitartekoen bazkari batean, anai-arreben artean komentatu eta denon artean pegatina bihurtu dute ideia hura, kotxeetan edo kristaletan itsasteko aproposa. Salgai jarri dute 2,50 eurotan eta kolore desberdinetan Goienkaleko 'Quetzal' arropa-dendan dago eskuragarri.


**Bertako Bildumaren zerbitzua aurkeztu da**

Ermuko Bertako Bildumaren aurkezpena egin zen Lobianon martxoa hasieran. Bertan Ermua gaitzat duten dokumentuak biltzen dira, bere euskarri edozein izanik ere. Dokumentu hauek edozein euskarritan egon daitezke eta herriko edozer gai jorratu dezakete, baina egile ermuarrek idatzita edo Ermua zein ermuarrei buruz behar dute izan. Herriko jendearen parte-hartzea ezinbestekoa izango da webgune hau aberasgarri bihurtzeko eta dokumentuak gehitzen joango dira etengabe. Momentuz badaude, esaterako, Cosme Cortazar, Orbe familia, Felix Izaguirre, Teresa Murga, jaietako kartelak eta herriko hegaztiei buruz berba egiten duten idatzi, argazki, bideo eta soinu artxiboak, besteak beste. Berau 8 atal ezberdinetan banatzen da: Historia, Kultur Ondarea, Gizarte Ondarea, Monumentu Ondarea, Natura Ondarea, Ermuko Seme-Alabak, Fototeka eta Bertako Berriak. Bilduma honen biltzailea Udal Liburutegia izan da nagusiki eta aurkezpenean Carlos Totorika alkateak eta Udal Liburutegiaren arduradunak diren Sara Gago eta Isabel Gonzálezek parte hartu zuten. Ikusi ahal izateko, www.ermua.es webgunera sartu beharko da, handik Liburutegira eta han 'Bertako Bilduma' atalean sakatu.

**Folkez Blai abian da**

Folk musikako herriko taldeekin lankidetzan, 'V. Folkez Blai' lehiaketa antolatu du Ermuko Udalak. Urtero bezala, lehiaketa bi fasetan gauzatuko da: lehenengoan, lehiaketara aurkeztutako grabazioak aztertu eta hainbat aukeratuko dira; bigarrenen, finalera heltzen diren 6 taldeek zuzenean joko dituzte beraien abestiak. Bigarren fase hau irailaren 10etik 12ra burutuko da eta kontzertu horietan folk talde ospetsu batek hartuko du parte, hala nola iazko Folkez Blai-ko talde irabazleek. Grabazioak lau abesti izan beharko ditu eta abesti horietatik bi gutxienez originalak izan beharko dira. Aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da eta sariak 3.000 eta 1.500 eurokoak izango dira. Informazio gehiago jasotzeko Ermuko Udalera deitu: 943179010.





ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

**DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR**

Drogeteniturrri, 177 zkia.

T

**XALAPARTA
ABERNA**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

**ENKARGYAK
943 030 299**